

CELSIUS₃₂



Alas

Alas

Prestatu bidaiarako! Eguzkirako bidai amaigabea, non haren berotasunak gidatuko ditu bide zuzenetik hegaldi honen

partaideak. Hegoak zabaldu berri dituztelarik, Celsius 32eko bidaiariek prest dira jadanik lehendabiziko eguzkirako bidai bukaezina hasteko. Agian, hegoak hedatu berri dituztelako eta jarraitzaileen berotasunaz baliatuz amaigabeko bidai bat egin nahi dutelako, deitu diote "Alas" disko berri honi.

Celsius32en lehendabiziko lanaren aurrean aurkitzen gara, lan rockeroa eta era berean metal doinu kutxuak bistan usten dituen. Gogorra ematen du, ezta? Dena den, ahots melodiko bati ezker, bilakatzen da leuna agian horren gogorra ematen duen talde hau.

Hitzei dagokionez, egunerokotasunean edonori gerta dakizkioken egoerak adierazi nahi dizkigute Uribe Kostakoak. Amodio-ezamodia, salaketa, nostalgia, edozerk dauka tokia disko honetan.

2004an sortu zen CELSIUS 32, David, Pino, Txonan eta Igorren eskutik, 2005erarte taldea boskote moduan guztiz finkatu ez zen arren, hainbat gora-bera bizi behar izan zituztelarik behin behineko formazioa lortu arte. Behin taldea finkatuta, hamasei abestiekin osatutako maketa bat grabatzea erabakitzen dute, hauetatik hamabi aukeratu zituztelarik "Alas" izeneko disko berri hau eratzeko.

"Alas", Baga-bigak Boluetan dituen estudioetan grabatua, nahastua eta masterizatua izan da 2006.eko uztaila eta abuztu bitartean, Kike Mora teknikari eta produktorearen eskutik.

Hiru, bi, bat...

... has dadila bidaia!

David Gandara: Ahots nagusia eta Gitarra / **Mario Onea:** Gitarra
Samuel Cerrato: Teklatua / **Jon Ander Garraramendi:** baxua / **Igor Almagia:** Bateria



baga-biga musika ideiak
221 Posta Kutxa - Mungia 48100 Bizkaia
tel. 618 072 076 / 026
info@baga-biga.com www.baga-biga.com

CELSIUS₃₂